

XEDAPEN OROKORRAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

3138

138/2025 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Merkasaretza Merkataritza Laguntzako Puntuen Euskal Sarea sortu eta Merkataritza Laguntzako Zerbitzuen Zorroa zehazten duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eskumena du, Merkataritza Jardueraren maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen arabera, barne-merkataritza sustatzera eta bultzatzera bideratutako neurri egokiak hartzeko, beste administrazio eta organismo batzuek beren eskumenak erabiliz garatzen dituztenekin koordinatuta eta lankidetzan.

Lege horren arabera, gidaritzat izango ditu lehia aske eta leialaren printzipioa, eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen interes legitimoen defentsaren printzipioa; horrenbestez, behar adina neurri hartuko da merkataritza-jarduera arrazionalizatzen eta modernizatzen eta merkaturak gardena izaten laguntzeko.

Era berean, 50. artikulua dioenez, merkataritza-enpresentzako laguntza teknikoa ematean, Eusko Jaurlaritzak lankidetzak sustatuko du tokiko merkataritza modernizatzeko merkataritza-orientazioko udal-planak dituzten udalekin, bai eta beste entitate publiko edo pribatu batzuekin ere, eta hitzarmenak sinatuko ditu, edo lortu nahi diren helburuak lortzeko egokiena den moldeak erabiliko du.

Halaber, Merkataritza 2030 Merkataritzaren Estrategia onartzeak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren jarduketa-testuingurua ezartzen du, merkataritza-arloan dituen eskumenak garatzeko eta gauzatzeko, eta helburuen, estrategien eta jarduketaren edukia zehazten du.

Estrategiaren helburua da merkataritza-egoera berri batera egokitutako merkataritza-politika berrituak abian jartzea eta modu mailakatuan garatzea. Ezaugarri hauek ditu merkataritza-egoera berri horrek: eraldaketa teknologiko sakona; hiri-agenda berria; merkataritzaren eta zerbitzuen arteko mugak lausotzea; eta etengabe aldatzen eta hazten ari den lehia-eskakizun enpresariala, askotariko kontsumitzaileentzako zerbitzu-baldintza gisa; izan ere, kontsumitzaileek balio berriak, premia berriak eta erosten dutenari eta erosteko moduari sakonki eragiten dioten ohitura berriak dituzte.

Estrategian jasotako premisek (hala nola baliabide publikoen erakundearteko gobernantza irekia eta koordinatua edo lankidetzak publiko-pribatuko modu berriak garatzeko premia) azpimarratzen dute beharrezkoa dela kalitate handiko laguntza teknikoko egitura bat izateko aukera emango duen gobernantza izatea, merkataritza-politika publikoak koordinatzen eta dinamizatzen laguntzeko.

Eusko Jaurlaritzan merkataritzaren arloko eskumena duen zuzendaritzak merkataritzako bulego teknikoaren programa bat izan du joan den mendeko laurogeita hamarrekota hamarkadaz geroztik. Programa hori funtsezkoa izan da sektorearentzat, behar zuen aholkularitza espezializatua eman baitio. Horren erakusgarri da laguntza-puntuen ugartzea, dozenaka bulego gutxi batzuk izatetik gaur egun berrogeita hamar izatera igaro baita.

Ia hiru hamarkadaren ondoren, beharrezkoa da bulegoen eraldaketa eta bilakaera, merkataritza-sektoreko eragileen egungo egoerara eta trantsizio sozioekonomikoak, teknologikoak eta ingurumenekoak markatutako ingurune aldakorretara egokitzeko. Era berean, beharrezkoa da

lege-esparru berrira egokitzea, zeren eta bulegoak kudeatzeko eginkizunak ezin baitira dirulaguntza publikoen bidez betetzen jarraitu. Horrenbestez, laguntza teknikoaren funtzionamendua eta edukia birformulatu behar dira, merkataritza-politikak hobeto ezartzeko.

Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legeak, alde batetik, 11. artikuluan definitzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Instituzionalaren antolamendu-diseinuari aplikatu beharreko irizpideak, eta «sareko lanaren sustapena» aldarrikatzen du; eta, bestetik, 33. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko entitateei ahalmena ematen die beste administrazio publiko batzuekin lankidetzak hitzarmenak sinatzeko, bakoitzak bere eskumenen esparruan jardunez, hargatik eragotzi gabe Gobernu Kontseiluak horiek baimentzea edo onartzea.

Dekretu honen xedea da Merkasaretza Merkataritza Laguntzako Puntuen Euskal Sarea sortzea eta Merkataritza Laguntzako Zerbitzuen Zorroa zehaztea, merkataritza-banaketaren sektoreak dituen erronka berriei aurre egitera bideratutako laguntza espezializatua emateko. Horretarako, prozesuak bultzatuko dira, jarduketa-eremu bakoitzeko saltokien lehiakortasuna hobetu dadin eta ingurune aldakorrera egokitu daitezen.

Merkataritzari laguntza teknikoa ematea proposatzen da, doan eta merkataritza-banaketaren sektore osoarentzako eta sektoreko erakundeentzako, generoaren, jasangarritasunaren eta eraldaketa digitalaren ikuspegia kontuan hartuta.

Merkasaretza Merkataritza Laguntzako Puntuen Euskal Sareak hainbat zerbitzu izango ditu; besteak beste, saltokiei informazioa eta laguntza ematea eta merkataritza-jarduera dinamizatzea eta bultzatzea. Hori guztia kalitate- eta profesionaltasun-irizpideen arabera, modu koordinatuan, partekatuan eta behar bezala egituratuta, merkataritza-sektorearen erresilientzia, lehiakortasuna eta jasangarritasuna bultzatuko dituzten estrategiak zehaztu ahal izateko.

Dekretuak bost kapitulu, hemeretzi artikulua, xedapen gehigarri bat, bi azken xedapen eta bi eranskin ditu.

I. kapituluak xedapen orokorrak jasotzen ditu, eta bertan adierazten dira dekretuaren xedea eta merkataritza-laguntzako puntuen definizioa. Merkataritza Laguntzako Puntuen Euskal Sarea eratzen da, eta sare horretan sartzeko modua zehazten.

II. kapituluak Merkasaretza Merkataritza Laguntzako Puntuen Euskal Sarearen mapa zehazten du.

III. kapituluak Merkataritza Laguntzako Zerbitzuen Zorroa eta Merkataritza Laguntzako Puntuen Euskal Sareari atxikitako merkataritza-laguntzako puntuen betebeharrak zehazten ditu.

IV. kapituluak Merkataritza Laguntzako Puntuen Euskal Sareari atxikitzeko prozedurari buruzkoa da, eta Ebaluazio eta Jarraipen Batzordea eratzen du, eskabideak aztertu eta ebaluatzeko.

V. kapituluak, araubide juridikoari buruzkoak, merkataritza-arloan eskumena duen zuzendari-tzak Sarearen helburu eta xede orokorreari erantzuteko dituen betebeharrak jasotzen ditu, baita irudi korporatiboa, betebeharrak ez-betetzearen ondorioak, ikuskapena eta datu pertsonalen tratamendua ere.

Xedapen gehigarriak aurrekontu-zuzkiduraren berri ematen du, eta lehenengo deialdia egiten du.

Azken xedapenetako lehenengoak ahalmena ematen dio Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari dekretu hau garatzeko eta betearazteko behar diren beste xedapen emateko.

Azken xedapenetako bigarrenak jakinarazten du xedapen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dela indarrean.

I. eranskinak Merkataritza Laguntzako Puntuen Euskal Sarearen Mapa zehazten du.

II. eranskina, azkenik, hitzarmenak sinatzeko oinarri izango den esparru-hitzarmenari dagokio.

Horrenbestez, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak 2025eko uztailaren 1ean egindako bilkuran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen xedea da Merkasaretza Merkataritza Laguntzako Puntuen Euskal Sarea sortzea, merkataritza-banaketaren sektorearen erronka berriei laguntza espezializatuaren bidez heltzeko. Sarearen helburua prozesu koordinatuak bultzatzea da, jarduketa-eremu bakoitzean saltokien lehiakortasuna hobetzen laguntzeko eta etengabe aldatzen ari den ingurune batera egokitzen laguntzeko.

2. artikulua.– Merkataritza Laguntzako Puntua-MLP.

Merkasaretza Euskal Sareari atxikitako Merkataritza Laguntzako Puntuak (MLP) laguntza-zerbitzuak eskainiko dizkie, doan, merkataritza-banaketaren sektore osoari eta sektoreko antolakundeei, langile kualifikatuen bidez, bere jarduketa-eremuaren barruan, kontuan hartuta genero-ikuspegia, establezimenduaren jasangarritasun ekonomikoa, ingurumen-jasangarritasuna eta eraldaketa digitala. Hori guztia, gainera, hiri-merkataritzaren lurraldeko arazoa gertutik eta ondo ezagututa egingo dute.

3. artikulua.– Merkasaretza Euskal Sarea.

1.– Merkasaretza Merkataritza Laguntzako Puntuen Euskal Sarea eratzen da, nortasun juridikorik gabea.

2.– Merkasaretza Euskal Sarea honako hauek osatuko dute:

a) Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 2.1 artikuluaaren definizioarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten toki-entitateek, organismo autonomoek edo haien mendeko beste entitate batzuek eta garapen-agentziek sortutako MLPak.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan behar bezala eratutako eta kokatutako irabazi-asmorik gabeko elkarte eta fundazioek sortutako MLPak, baldin eta horien helburuen artean hiriko merkataritza-jarduerarekin lotutako merkataritzari edo zerbitzuei laguntzea badago.

c) Merkatarien federazioek sortutako MLPak, baldin eta kokatuta dauden lurralde historikoko merkataritza-banaketaren sektore osoari laguntza emateko helburua badute, eta merkataritza-jardueraren azpisektore-ikuspegia ere barne hartzen badute.

4. artikulua.– Merkasaretza Euskal Sarean sartzea.

Merkasaretza Euskal Sarean sartzeko:

1.– Hirugarren artikuluko a) letran adierazitako entitateek hiri-ekonomia jasangarriako plan estrategiko bat izan beharko dute erreferentziazko udalerrian, edo Sareari atxikitzeko lankidetza-hitzarmena sinatu eta gehienez ere 12 hilabeteko epean halako plan bat garatzeko konpromisoa hartu beharko dute.

2.– Hirugarren artikuluko b) eta c) letretako entitateek Euskadiko Merkatarien Elkartearen Errol-dan inskribatuta egon beharko dute (89/2025 Dekretua). Fundazioek, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuta egon beharko dute.

Gainera, baldintza hauek bete beharko dituzte:

– Eratu zirenetik gutxienez 10 urtez jardun izana edo azken 5 urteetan 3 urtez merkataritzako bulego tekniko bat kudeatu izana.

– Diharduten lurralde-eremuko txikizkako merkataritza-parkearen % 10 ordezkatzeko gutxienez.

Ehuneko txikiagoak onartu eta are lehenetsi ahal izango dira, sarearen kapilaritate handiagoa ahalbidetzeko, eta, horrela, zerbitzu hurbilagoa eta eraginkorragoa emateko gaitasuna handitzeko.

– Jarduketa-plan bat izatea edo Sareari atxikitzeko lankidetza-hitzarmena sinatu eta gehienez ere 6 hilabeteko epean jarduketa-plana garatzeko konpromisoa hartzea.

Eta egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

3.– Merkasaretza Euskal Sarean sartzeko, merkataritza-arloan eskumena duen sailburuordeak ebazpena emango du, dekretu honen IV. kapituluan ezarritako prozeduraren arabera eskabidea egin ondoren, dagokion lankidetza-hitzarmena formalizatuta.

II. KAPITULUA

MERKASARETZA MERKATARITZA-LAGUNTZAKO PUNTUEN EUSKAL SAREAREN MAPA

5. artikulua.– Merkasaretza Euskal Sarearen mapa.

1.– Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Merkasaretza Merkataritza Laguntzako Puntuaren Euskal Sarearen (MLP) mapa onartzen du. Mapa horrek (eranskinean dago zehaztuta) merkataritza-laguntza emateko lurralde-egitura optimoa ezartzen du, kontuan hartuta eskualde-banaketa, udal-banaketa, banaketa demografikoa eta Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta lurralde mailako merkataritza-dentsitatea, betiere zerbitzuak merkataritza-sektoretik ahalik eta hurbilen egongo direla bermatzeko.

2.– Merkasaretza Euskal Sarearen mapa egitean, subsidiarotasun- eta osagarritasun-printzipioak hartzen dira kontuan, eta zerbitzuak ematean gerta daitezkeen bikoiztasunak saihestuko dira.

3.– Aldian-aldean eguneratuko da, gutxienez lau urtean behin, egindako ebaluazioak kontuan hartuta eta barne-merkataritzako politikak ebaluatzeko, ikertzeko eta berritzeko zeregina duen organoak proposatuta.

4.– Merkasaretza Euskal Sarearen mapa kontuan hartuta, 3. artikuluko a) eta b) letretan aipatzen diren entitateek eranskinean deskribatzen diren zonako MLPetara jotzeko aukera izango dute (1.tik 24.era bitarteko zonak).

3. artikuluko c) lettran jasotako entitateek lurraldeko MLPetara jo ahal izango dute (eranskineko 25., 26. eta 27. zonak).

Nolanahi ere, parte-hartzearen aniztasuna bermatzeko eta lan-baliabideak eta lan-kargak gehiegi kontzentratzea saihesteko, entitate berak ezingo du hitzartu zonako edo lurraldeko bi MLP baino gehiago kudeatzea.

III. KAPITULUA

MERKASARETZA EUSKAL SAREAREN ZERBITZU-ZORROA

6. artikulua.– Zerbitzuen Zorroa.

Merkasaretza Euskal Sarearen Zerbitzuen Zorroak, gutxienez, honako zerbitzu hauek bermatuko ditu:

1.– MLParen jarduketa-eremuari dagokionez:

– Merkataritza-enpresen eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuen parte-hartze aktiboa, konprometitua eta kontzientea sustatzea sailaren programetan eta horietatik sor daitezkeen proiektuetan, eta horiei buruzko informazio osoa ematea.

– Sailaren programetan eta sor daitezkeen proiektuetan eragile asoziatiboen parte-hartze aktiboa, konprometitua eta kontzientea sustatzea, eta horiei buruzko informazio osoa ematea.

Udalerri mailako edo eskualde mailako jarduketa-eremua duten zonako merkataritza-laguntzako puntuak merkataritza-sustapena eta -dinamizazioa bultzatuko dute modu koordinatuan, elkarte-ehunaren eta udalerriko udalaren arteko elkarlan publiko-pribatuaren bidez, ezarritako estrategiaren ildotik. 20.000 biztanletik beherako udalerrietan, udalerri mailan egiten duten lanaz gain, puntu horiek eskualdean merkataritza-dentsitate txikiena duten udalerri txikietako elkarteak eta udalen ekimenei buruzko informazioa emango dute eta ekimen horiek bultzatu eta lagunduko dituzte.

Lurralde historikoetan diharduten laguntzako lurralde-puntuak zeharka jardungo dute inplikaturako elkarte-ehunekin. Era berean, azpisektore-ikuspegia emango diote merkataritza-sektorearen lurralde-ikuspegiari, eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuak eskainiko dituzte.

– Kontsumo jasangarriaren ohiturak sustatzea eta udalerriko kontsumitzaileen eskubideak babesten direla zaintzea.

– Sailaren eta entitate publiko zein pribatuaren artean ezarritako lankidetzak hitzarmenak berariaz betetzen direla zaintzea, hiri-ekonomiako plan estrategikoak abian jartzeko eta, hala badagokio, garatzeko.

– Plan horien garapena bultzatzea eta erraztea, urteko lan-planak eta horiek jasotzen dituzten ekintzak dinamizatzen, gauzatzen eta horien jarraipena egiten modu proaktiboan lagunduz. Era berean, esku hartzen duten eragile publiko zein pribatuaren arteko lotura izango da, eta sustatu egingo du merkataritza-sektoreak jarduera ekonomikoko sektore guztiekin koordinatuta parte hartzea.

– Proiektuak garatzeko interesgarriak izan daitezkeen baliabideak (finantzarioak, giza baliabideak, baliabide materialak eta abar) identifikatzea eta lortzen laguntzea, bai sailak emandakoak, bai beste erakunde edo entitate batzuek emandakoak.

– Ebaluazio eta Jarraipen Batzordearen lanak erraztea, kasuan kasuko plangintzetan ezarritako adierazleak edo parametroak kontrolatuz eta horien jarraipena eginez.

– Elkarre-egituretan beharrezkoa den eraldaketa lehiakorra egiten laguntzea eta bultzatzea MLParen jarduketa-eremuaren barruan, haien antolamendua birdiseinatzen lagunduta, garapen estrategikoetan edo proiektuetan modu proportzionatuan inplikatzeko sustatuta, eta haien baliabideen eta enpresa elkartuen beharren arabera.

– Bere jarduketa-eremuaren barruan ezarritako helburua betetzera bideratutako beste edozein.

2.– Sareko kide izateari dagokionez:

– Sailak eta merkataritza-laguntzako puntuaz arduratzen den entitateak sinatutako lankidetzak-hitzarmeneko eskakizun teknikoak eta baldintzak betetzen direla bermatzea.

– Merkasaretza Euskal Sarean aktiboki parte hartzea eta sareko lana eta merkataritza-laguntzako puntu guztien ezagutza partekatua sustatzea.

– Merkataritza-arloan eskumena duen zuzendaritzari laguntzea sarea koordinatzen eta laguntzako puntuen ekintzen jarraipena egiten, deialdiei eta oharrei arretaz erantzunez, eta sareko funtzionamendua hobetzeko iradokizunak eta proposamenak eginez.

– Merkataritza Laguntzako Puntuen Sareari helaraztea parte hartzen duen proiektuen garapenean sortutako esperientziak, ikaskuntzak eta ezagutzak, bai eta sarea osatzen duten gainerako MLPek emandakoak kontuan hartzea ere.

– Merkataritza-arloan eskumena duen zuzendaritzak edo MLPa hartzen duen entitateak planteatzen dituzten informazio-, prestakuntza- eta sentsibilizazio-prozesuak arretaz jarraitzea eta horiei probetxu ateratzea.

– Sarearen Ebaluazio eta Jarraipen Batzordearen ebaluazio-lanak erraztea, zehazten diren informazioa, datuak eta adierazleak emanez.

– Merkataritza-arloan eskumena duen zuzendaritzak zehaztutako beste edozein.

7. artikulua.– MPLen betebeharrak.

Merkasaretza Euskal Sareari atxikitako MLPek EAEko merkataritza-laguntza eta sarea bera hobetzea sustatu beharko dute. Horretarako, honako hauek bete beharko dituzte:

1.– Merkataritza Laguntzako Zerbitzuen Zorroa onartzea.

2.– Merkataritza Laguntzako Euskal Sareari atxikitzea eragin zuten baldintzak betetzen jarraitzea.

3.– MLPek emandako aholkularitza- eta informazio-zerbitzua doan ematea merkataritza-sektore osoari eta bere jarduketa-eremuko merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuen sektoreari. Gainera, zerbitzu hori Euskadiko bi hizkuntza ofizialetan eskaintzen dela bermatu beharko da, MLPa hartzen duen entitatearen erantzukizunpeko adierazpenaren bidez.

4.– MLPko teknikariak Zerbitzuen Zorroa betetzeaz bakarrik arduratuko dira, arduraldi osoz.

5.– Merkataritza Laguntzako Puntua gehienez ere 30 eguneko epean eratu beharko da, Merkasaretza Euskal Sareari atxikitzea gauzatzeko lankidetzatza-hitzarmena formalizatu ondoren.

6.– MLPa hartzen duen entitateak behar beste leku eman beharko dio merkataritza-laguntzaileari bere lana behar bezala egin dezan; gutxienez honako hauek izango ditu:

a) Lan-mahaia.

b) Ekipamendu informatikoa, telefono bidezko konexioa eta konexio digitala.

c) Lekua beste zerbitzu batzuekin partekatuta badago, Merkasaretza sarearen irudiarekin behar bezala bereizita eta identifikatuta egon beharko du, xedatzen den moduan.

d) Biltzeko eta arreta pertsonalizatua emateko gune pribatuetarako sarbidea.

7.– MLPa hartzen duen entitateak merkataritza-laguntzaile baten kontratazioa ziurtatu behar du, lanposturako eskatzen den lanbide-profilaren arabera. Profil horrek hau hartu beharko du barne:

a) Unibertsitate-titulu ofiziala; gizarte-zientziekin zerikusia duten ikasketak lehenetsiko dira.

b) Lanpostuarekin lotutako prestakuntza espezifikoaren egiaztagiria, bai eta lan-eremuko proiektuen kudeaketan esperientzia egiaztatua ere.

Kontratazioa hautaketa- eta egiaztapen-prozesu baten bidez egingo da, eta prozesu horrek merkataritza-laguntzailearen prestakuntza, gaitasuna eta lanbide-trebetasunak ebaluatuko ditu. Prozesu hori lankidetzatza-hitzarmena sinatu duen entitateak egingo du, eta merkataritza-arloan eskumena duen zuzendaritzak baliozkotu beharko du.

Merkataritzako teknikari laguntzaileen kontratazioak honako baldintza hauek bete beharko ditu gutxienez:

a) Kontratazioa lanaldi osokoa izango da, titulazioari eta esperientzia egiaztatuari dagokion lanbide-kategoriaren arabera. Lan-baldintzak, orobat, aplikatu beharreko lan-hitzarmenaren arabera arautuko dira.

b) Merkataritza-laguntzaileari alta emango zaio Gizarte Segurantzari, MLPa eratzeke eta sareari atxikitzeke lankidetzatza-hitzarmena formalizatu eta gehienez ere 45 eguneko epean.

c) Kontratututako pertsonari bere eginkizuna betetzeko behar duen ekipamendu material guztia helaraziko zaio: ekipamendu informatikoa, telefonoa, lantoki egokia eta abar.

d) MLPak ematen duen zerbitzuak bermatuta egon beharko du une oro, eta soilik arrazoi hauen-
gatik onartuko dira ordezkapenak edo kontratazio berriak:

– Kontziliazioak eragindako lanaldi-murrizketengatik.

– Laneko bajengatik.

– Lana borondatez uzteagatik.

– Heriotzagatik, baliaezintasun handiagatik edo ezintasun iraunkor oso edo absolutuagatik.

– Erretiroagatik.

Ordezkapena egingo duen pertsonak lehen adierazitako hautaketa-, kontratazio- eta baliozkotze-prozesu berberak bete beharko ditu.

8.– Merkataritza-laguntzako urteko lan-plana egitea, oinarri hartuta Zerbitzuen Zorroa eta MLPa eratzeko esparru izan ziren planak, eta bat etorrita bere jarduketa-eremuko plan estrategikoekin.

9.– Hamabi hilabeteko aldi bakoitza amaitu ondoren, honako dokumentazio hau aurkeztuko dute, hilabeteko epean:

- Merkataritza-laguntzailea kontratatzearen kostua eta gastu operatiboak justifikatzen dituen memoria ekonomikoa.

- Merkataritza-laguntzako urteko lan-planaren ebaluazio-memoria, gutxienez honako hauek adierazita:

- Zenbat argitalpen egin diren sare sozialetan eta zenbat mezu elektroniko edo SMS bidali diren merkataritza-enpresentzat eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuen enpresentzat interesgarria izan daitekeen informazioa zabaltzeko.

- Zenbat kontsultari erantzun zaien eta zeintzuk diren erantzun zaien establezimenduen sektorea eta biztanleria.

- Zenbat izapide eta zein motatakoak egin diren, zeintzuk diren eskatzaileen sektorea eta biztanleria, zein den dirulaguntza kudeatzen duen organismo publikoa eta zein den dirulaguntzaren helburua.

- Zer jarduera egin diren, eta zein izan den jarduera horien parte-hartzea eta gogobetetze-inkes-taren bidezko balorazioa.

- Zenbateko bertaratzea izan duten merkataritza-arloan eskumena duen zuzendaritzak antolatutako birziklatzeko prestakuntza-jarduerak, bilerek eta lan-saioek.

10.– Merkasaretza Euskal Sarearen jardueretan aktiboki parte hartzea; merkataritza-laguntzaileak birziklatzeko prestakuntza-jardueretan eta merkataritza-arloan eskumena duen zuzendaritzak antolatutako sareko bileretan eta lan-saioetan parte hartuko du.

11.– Merkataritza-arloan eskumena duen zuzendaritzak koordinatuta, gainerako merkataritza-laguntzako puntuekin elkarlanean aritzea, Sarearen emaitzak optimizatzeko.

IV. KAPITULUA

MERKASARETZA EUSKAL SAREARI ATXIKITZEKO PROZEDURA

8. artikulua.– Atxikitze deialdiak.

Merkataritza-arloan eskumena duen zuzendaritzak Merkasaretza Euskal Sareari atxikitze eskaera egiteko epea irekitzen du xedapen gehigarri baten bidez.

Aldian-aldian, eta Sarearen Ebaluazio eta Jarraipen Batzordeak eskatuta, deialdi berriak egin ahal izango dira sarea osatzeko eta operatibo mantentzeko.

9. artikulua.– Eskabideak.

1.– Merkasaretza Euskal Sareari atxikitze prozedura 3. artikuluan jasotako entitate, elkarte, fundazio eta federazioen titularrak eskatuta hasiko da.

2.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, izapidetze elektronikoa nahitaezkoa izango da prozeduraren fase guztietan.

3.– Eskabidea eskuratu eta betetzeko bide bakarra Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egoitza elektronikora jotzea izango da. Helbidea honako hau da: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/12503>

Elektronikoki nola izapidetu jakiteko zehaztapenak eta eskabide-eredua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egoitza elektroniko horretan egongo dira eskuragarri.

Espedientean sartzeko, errekerimenduak eta jakinarazpenak jasotzeko eta prozedurarekin lotutako gainerako izapideak egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» aplikazioa baliatu behar da (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>).

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragai: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

5.– Eskabidearekin batera, entitate eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonaren edo entitatearen sinadura elektroniko aitortuaz gain, harekin batera aurkeztu beharreko dokumentu guztiak eta Administrazioak, urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera, eska ditzakeenak ere aurkeztu beharko dira.

6.– Ordezkaritza bidez jardun nahi izanez gero, ordezkaritza beste pertsona bati eman ahal izango zaio, interesdunaren izenean jardun dezan bitarteko elektronikoen bidez, agindu honi buruzko prozedura guztietan. Horretarako, honako bitarteko hauek erabiliko dira:

– Ordezkarien Erregistro Elektronikoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egoitza elektronikoa kokatua (<https://www.euskadi.eus/ordezkaritza/>), edo honen bidez

– Borondatezko legezko ordezkaritza egilestea inprimaki normaldua» (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurkitze/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>), behar bezala formalizatua; eskabidearekin batera aurkeztu beharko da.

Gainera, ordezkaritza-ahalordea erantsi beharko dute, edo ahalorde-emailea entitate ordezkaritza-emailearen legezko ordezkari gisa legitimatzen duen legezko zeinahi dokumentu.

Ordezkaritza identifikaziorako bitarteko elektronikoa onartu bat eduki beharko du. Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egitearen ondorioetarako, eskatzaileek entitatearen ordezkaritza izandako aldaketan berri eman beharko diete organo jarduleei, aldaketak izan bezain laster. Entitatearen ordezkariaren aldaketaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera egiten diren jakinarazpenetan gauzatuko da aldaketa. Data horren aurretik espedientean agertzen den ordezkariari zuzendutako jakinarazpenak behar bezala egindakotzat joko dira.

7.– Eskabidea, eskatzen diren dokumentuekin batera, aukeratzen den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango da. Ildo horretatik, eskatzaile bakoitzak hautatutako hizkuntza erabiliko da eskabidea aurkeztu ondoko jarduketetan, prozedurak irauten duen bitartean, Euskararen Erabileraren Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarriko Legearekin bat etorritik.

8.– Sareari atxikitzeko eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Kasu bakoitzean eskumena duen organoak hartutako akordioaren ziurtagiria, sareari atxikitzeko borondatea adierazten duena.

b) Garapen-agentziek, elkarteek, fundazioek eta federazioek estatutuak aurkeztu beharko dituzte.

c) Hala badagokio, eskatzailearen ordezkaritza-ahalmena egiaztatzen duen dokumentazioa, 6. apartatuaren arabera.

d) Merkataritza-laguntzako urteko lan-plana.

e) MLParen funtzionamendurako aurrekontuko zuzkidura ekonomikoa.

f) MLParen buru izateko proposatutako merkataritza-laguntzailearen curriculum vitae.

g) 7.7 artikuluan eskatutako unibertsitate-titulu ofiziala edo behin-behineko ziurtagiri osagarria, Unibertsitate Titulu Ofizialak Emateari buruzko abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuaren 14.2 artikulua arabera.

h) Hiri Ekonomia Jasangarrirako Plan Estrategikoa edo Jarduketa Plana edo hura garatzeko konpromisoa.

i) Argazki bidez egiaztatzea MLPak 7.6 artikuluan eskatutako espazioa duela.

b), c) eta g) puntuetan eskatutako dokumentazioa kasu honetan bakarrik eskatu ahal izango da: eskatzaileak aurka egiten badio organo kudeatzaileak zuzenean eskatzeari.

4. artikuluan eskatzen den ordezkagarritasuna ofizioz kalkulatu da, erroldako datuen arabera.

10. artikulua.– Ebaluazio eta Jarraipen Batzordea.

1.– Merkasaretza Euskal Sarearen Ebaluazio eta Jarraipen Batzordea eratzen da.

2.– Batzordea merkataritza-arloan eskumena duen zuzendaritzari atxikitako bost pertsona hauek osatuko dute:

a) Zuzendaritzaren titularra; batzordeburua izango da. Haren ordezkoa Zuzendaritzako merkataritzako arduradun teknikoa izango da.

b) Zuzendaritzako merkataritzako arduradun teknikoa. Haren ordezkari, Zuzendaritzako talde teknikoko pertsona bat egongo da.

c) Zuzendaritzako talde teknikoko pertsona bat.

d) Zuzendaritzako aholkulari juridiko bat.

e) Zuzendaritzako talde teknikoko pertsona bat; idazkaria izango da, eta hitza izango du, baina botorik ez.

Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatuko da, betiere kontuan hartuta Zuzendaritzan dauden langileak.

3.– Ebaluazio eta Jarraipen Batzordearen zereginak honako hauek izango dira:

a) MLP bat sortzeko eta Merkasaretza Euskal Sareari atxikitzeko eskabideak balioetsi eta baliozkotzea.

b) MLPen urteko lan-planak baliozkotzea eta, hala badagokio, plan horiek hobetzeko eta egokitzeko proposamenak egitea, proposatutako jarduketak eta ekintzak Merkataritza 2030 Merkataritza Estrategiaren edo lurralde-estrategien planetara eta ildo estrategikoetara ahal beste doitzeko.

c) Lan-planen sei hilean behingo jarraipena eta plan horien emaitzen urteko ebaluazioa.

d) Entitateak Merkasaretza sareari atxikitzeke eta ondoren parte hartzeke eskatzen diren eskakizunak betetzen dituela kontrolatzea, eta, beharrezkoa izanez gero, haren funtzionamendua ikuskatzea.

e) Doikuntza-proposamena edo, hala badagokio, sareko elkarlana eta parte-hartzea amaitzeko proposamena egitea, Merkataritza Laguntzako Puntuaren eskakizunak, betebeharrak eta funtzionamendua ez direla betetzen egiaztatuz gero.

f) Merkasaretza sarea behar bezala ezartzeko eta garatzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein.

11. artikulua.– Merkasaretza Euskal Sareari atxikitzeke eskabideak aztertu eta ebaluatzea.

1.– Entitate publiko edo pribatu bat Merkasaretza Euskal Sareari atxikitzeke, entitate interesdunak eskabidea aurkeztu beharko dio Eusko Jaurlaritzako merkataritza-arloan eskumena duen zuzendaritzari, eta hark Ebaluazio eta Jarraipen Batzordeari bidaliko dio eskabidea, balora dezan.

2.– Ebaluazio eta Jarraipen Batzordeak eskabideak eta aurkeztutako dokumentazioa aztertuko ditu, eta egiaztapenak egingo ditu dekretu honetan sareari atxikitzeke ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeke.

3.– Sareari atxikitzeke eskabideen ebaluazioan honako alderdi hauek hartuko dira kontuan:

a) Dekretu honetan Merkasaretza Euskal Sarera atxikitako MLPetarako ezarritako betekizun orokor eta espezifikoek betetze-maila.

b) MLParen kokapena, merkataritza-zerbitzuak emateko lurralde-egitura hoberena sortzeko.

c) MLParen ezaugarri fisikoak, baliabide materialak eta irisgarritasuna.

d) MLPko buru den merkataritza-laguntzailearen prestakuntza eta gaitasunak.

e) Merkataritza-laguntzako urteko lan-plana.

f) MLParen urteko lan-plana Eusko Jaurlaritzaren indarreko merkataritza-politikaren helburuekin bat etortzea, bai eta ezarritako baldintza orokor eta espezifikoek betetze-maila ere.

4.– Aurkeztutako eskabidean hutsak, akatsak edo zehaztasunik eza dagoela ikusiz gero, entitate eskatzaileari hamar egun balioduneko epea emango zaio, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, akatsa zuzentzeko edo eskatzen zaizkion agiriak aurkezteke. Halaber, jakinaraziko zaio hori egin ezean eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, 39/2015 Legearen 21. artikuluan aurreikusitako moduan emandako ebazpen baten bidez.

12. artikulua.– Ebazpena.

1.– Merkataritzaren arloan eskumena duen sailburuordeari dagokio atxikipen-eskaerak ebaztea, Ebaluazio eta Jarraipen Batzordeak balioespen-txostena egin ondoren. Txosten hori erakunde eskatzaileraren atxikimenduaren aldekoa edo aurkakoa izango da. Aldekoa bada, dagokion lankidetzahitzarmena formalizatuko da.

2.– Ebazpen hori gehienez ere 6 hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko zaio interesdunari. Epe hori eskabidea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoan sartzen den egunetik aurrera zenbatuko da.

Ebazpena epean ematen ez bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertuko da, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izateko.

3.– Ebazpenaren aurka, zeinak ez baitu administrazio-bidea amaitzen, pertsona edo entitate eskatzaileak gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango dio merkataritza-arloan eskumena duen sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera edo administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatzen diren egunetik aurrera, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Gora jotzeko errekurtsua egoitza elektronikoaren bidez bakarrik izapidetu ahal izango da: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta/web01-sede/eu/>

13. artikulua.– Lankidetza-hitzarmenak.

1.– Merkasaretza Euskal Sareari atxikitzearen aldeko ebazpena ematen bada, lankidetza-hitzarmena formalizatuko da. Hitzarmen hori administrazioarteko lankidetza-hitzarmena izan daiteke zuzenbide publikoko entitateen kasuan, edo lankidetza publiko-pribatuko hitzarmena, berriz, zuzenbide pribatuko entitateen kasuan.

2.– Administrazioarteko lankidetza-hitzarmenek aukera ematen dute Merkasaretza Euskal Sareari atxikitzeko interesa duten administrazio publikoen, organismo autonomoen eta zuzenbide publikoko entitateen atxikipena zehaztu, adostu eta artikulatzeko, eta Eusko Jaurlaritzaren eta entitate horien artean formalizatuko dira; beraz, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoa bete beharko dute.

3.– Lankidetza publiko-pribatuko hitzarmenek aukera ematen dute sareari atxikitzeko interesa duten zuzenbide pribatuko entitateen atxikimendua zehaztu, adostu eta artikulatzeko, Merkataritzako Euskal Estrategia gauzatu, inplementatu eta garatzeko lankidetza-tresna gisa eta gobernantza eta lankidetza publiko eta pribatua artikulatzeko bitarteko gisa. Hitzarmen horiek Jaurlaritzak eta tartean diren zuzenbide pribatuko entitateek formalizatuko dituzte, sareari atxikitzeko eta merkataritza-laguntzako zerbitzuen euskal zorroko zerbitzuak emateko interesa badute.

4.– Lankidetza-hitzarmenek honako hauek jasoko dituzte gutxienez: sareari atxikitzea onartzeko akordioa; merkataritza-laguntzako zerbitzuen euskal zorroaren onarpena eta hura betetzeko betebeharra; xedapen honetan araututako eskakizun eta baldintzen onarpena; atxikitako entitateen eta Eusko Jaurlaritzaren betebeharren eta eskubideen araubidea; Ebaluazio eta Jarraipen Batzordeak egindako ebaluazioaren onarpena; finantzaketa-araubidea eta indarraldia, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa eragotzi gabe.

5.– Lankidetza-hitzarmenak lau urterako formalizatuko dira, hau da, ondoz ondoko berrogeita zortzi hilabeterako, eta beste lau urterako luzatu ahal izango dira. Hori guztia, ezertan eragotzi gabe sareari atxikitzeko baldintzak betetzeari buruz eta, hala badagokio, ez-betetzeen ondorioz edo alderdi batek hala eskatuta, hitzarmena aldez aurretik amaitzeari buruz xedatutakoa.

6.– Merkataritza-arloan eskumena duen sailak dagozkion lankidetza-hitzarmenak sinatuko ditu gehienez ere 2 hilabeteko epean, atxikitzearen aldeko ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Entitate eskatzaileak hitzarmena sinatzen ez badu, atxikitzearen aldeko ebazpena ondoriorik gabe geratuko da eta baldintzak betetzen dituen beste batekin sinatu ahal izango da.

14. artikulua.– Inskripzioa.

Merkasaretza Euskal Sareari atxikitzeko ebazpenak ofizioz inskribatuko ditu merkataritza-arloan eskumena duen sailak, sareari atxikitako merkataritza-laguntzako puntuen erregistro batean. Erregistro hori euskarri informatikoko datu-base gisa eratuko da.

V. KAPITULUA

ARAUBIDE JURIDIKOA

15. artikulua.– Merkataritza-arloan eskumena duen zuzendaritzaren betebeharrak.

Sarearen helburu eta xede orokorreari erantzuteko, merkataritza-arloan eskumena duen zuzendaritzak:

a) Laguntza teknikoko esparru bat eskainiko du, eta koordinazio-, informazio-, prestakuntza-, ebaluazio- eta jarraipen-zereginak beteko ditu. Horrez gain, tresna teknologiko zehatzak eskainiko ditu, sareko kide guztiak aberastuko dituen funtzionamendu bateratua, ikaskuntza eta esperientzia-trukea bultzatzeko.

b) MLP bakoitzak bere ezaugarrien eta testuinguruaren arabera sortzen duen kasuistikatik harago, talde- eta kidetasun-zentzua sortzen duen irudi partekatua emango du.

c) Gehienez ere 40.000 euroko finantzaketa eskainiko du urtean, ondoz ondoko hamabi hilabeteko aldi bakoitzerako, hitzarmena sinatzen denetik indargabetzen den arte, merkataritza-laguntzailea kontratatzeko.

d) Ondoaz ondoko hamabi hilabeteko aldi horretarako bererako, merkataritza-laguntzako puntuko gastu operatiboak ordaintzen laguntzeko finantzaketa eskainiko du; gehienez ere merkataritza-laguntzailea kontratatzeko hitzartutako gastu finantzarrien % 10 emango du.

e) MLPetako teknikarien eta merkataritza-arloan eskumena duen zuzendaritzaren arteko bilerak sustatuko ditu, Merkasaretza Euskal Sareko kide izatearen sentimendua indartzeko eta ezagutzak eta esperientziak partekatzeko.

Gerora sortutako gorabeheren ondorioz, merkataritza-arloan eskumena duen zuzendaritzak c) eta d) letren finantzaketaren muga aldatu ahal izango du ebazpen publiko baten bidez.

Sinatzen den lankidetz hitzarmena indarrean dagoen bitartean, hamabi hilabeteko aldi bakoitzari dagokion zuzkidura bi igorpenen bidez ordainduko da: lehenengoan, zuzkidura horren % 60 ordainduko da aldi bakoitzeko lehen hiruhilekoan, eta, bigarrenetan, gainerako % 40a ordainduko da, 7.9 artikuluan ezarritako justifikazioa aurkeztu ondoren.

16. artikulua.– Merkasaretza Euskal Sarearen irudi korporatiboa.

1.– Merkataritza-laguntzako zerbitzuen kanpoko irudi korporatiboa.

Merkasaretza Euskal Sareari atxikitako MLPek sare partekatuaren identifikazio bisuala izango dute.

2.– Nolanahi ere, Merkasaretza Euskal Sarearen irudi korporatiboak Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duen abuztuaren 31ko 318/1999 Dekretuan eta

Merkasaretza Euskal Sarearen erakunde-nortasunaren eskuliburuan xedatutakoa bete beharko du, eta barne-merkataritzan eskumena duen sailak kudeatuko du.

17. artikulua.– Ez-betetzea.

Merkasaretza Euskal Sareari atxikitako MLP batek xedapen honetan haientzat ezarritako araubidea betetzen ez badu, saretik kanpo geratuko da, eta sarean sartzean sortutako eskubideak galduko ditu, eta entitate interesdunarekin sinatutako hitzarmena suntsiaraziko da. Horretarako, aurrez espedientea izapidetuko da, eta espediente horretan, entzunaldia emango zaio merkataritza-laguntzako puntuaren titularrari.

Inguruabar hori merkataritza-arloan eskumena duen sailburuordearen ebazpen baten bidez gauzatuko da, eta dekretu honen 14. artikuluan aipatzen den Merkasaretza Euskal Sareari atxikitako Merkataritza Laguntzako Puntuen Erregistroan jasoko da, inskripzioa ezereztuta.

18. artikulua.– Ikuskapena.

Barne-merkataritzan eskumena duen sailak egokitzen jotzen dituen ikuskapenak eta egiaztatzen egingo ditu, MLPen betekizunak eta betebeharrak betetzen direla eta lan-planak behar bezala gauzatzen eta garatzen direla egiaztatzeko. Sarean sartutako entitateek eskatzen zaien informazio osagarri guztia eman beharko dute, hargatik eragotzi gabe beren eginkizunak egikaritzean Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egin dezaketen kontrola.

19. artikulua.– Datu pertsonalen tratamendua.

Datu pertsonalen tratamendua egin behar bada, honako araudi hau beteko da: batetik, (EB) 2016/679 Erregelamendua –Datuak babesteko erregelamendu orokorra–, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du), eta, bestetik, 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Publikotasun-printzipioa betetzeko, adierazten da dekretu honetan aurreikusitako finantzaketarako 8.800.000 euroko kreditua jaso dela Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legean. Zenbateko hori honela banakatuko da: 1.320.000 euro 2025eko ordainketa-kredituari dagozkio; 2.200.000 euro, 2026ko konpromiso-kredituari; 2.200.000 euro, 2027ko konpromiso-kredituari; 2.200.000 euro, 2028ko konpromiso-kredituari; eta 880.000 euro, 2029ko konpromiso-kredituari.

Bestalde, eta dekretuaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, lehenengo atxikitze-deialdia egin behar da. Horrenbestez, Merkasaretza Euskal Sareari atxikitze eskabideak aurkezteko epea irekiko da dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean, eta argitaratu eta hilabetera amaituko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ahalmena ematen zaio Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari dekretu hau garatzeko eta betearazteko behar diren xedapenak emateko.

Bigarrena.— Xedapen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko uztailaren 1ean.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ.

UZTAILAREN 1EKO 138/2025 DEKRETUAREN I. ERANSKINA

MERKASARETZA SAREKO MERKATARITZA-LAGUNTZAKO PUNTUEN MAPA

Zonako MLP-ak: Udal edo eskualde mailako merkataritza-laguntzako puntuak			
Zona	Lurralde-eremua	Udal mailako hedadura	MLP kopurua
Araba			
1	Vitoria-Gasteiz	Vitoria-Gasteiz	2
2	Aiarako Kuadrilla	Laudio, Amurrio, Urduña	2
3	Arabako gainerako eskualdeak	Arabako Errioxa, Arabako Lautada, Arabako Mendialdea, Gorbeialdea, Añana	1
Bizkaia			
4	Bilbo	Bilbao	2
5	Bilbo Handia	Portugalete, Santurtzi	2
6	Bilbo Handia	Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena, Muskiz, Ortuella, Valle de Trápaga-Trapagaran	1
7	Bilbo Handia	Barakaldo, Sestao	2
8	Bilbo Handia + Txorierri	Erandio, Leioa, Txorierri	1
9	Uribealdea	Mungialdea, Gorniz, Plentzia, Sopela, Urduliz	1
10	Bilbo Handia	Getxo, Berango	2
11	Busturialdea + Lea Artibai	Gernika-Lumo, Bermeo, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa	2
12	Bilbo Handia + Arratia Nerbioi	Basauri, Arrigorriaga, Etxebarri, Galdakao, Igorre	2
13	Durungaldea	Durango, Abadiño, Amorebieta-Etxano, Elorrio, Berriz, Iurreta, Zaldibar	2
14	Enkarterri	Balmaseda, Alonsotegi, Gueñes, Zalla	1
Gipuzkoa			
15	Donostia	Donostia	2
16	Bidasoa Beherea	Irun, Hondarribia	2
17	Oiartzualdea	Errenteria, Lezo, Oiartzun, Pasaia	1
18	Buruntzaldea	Hernani, Andoain, Astigarraga, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil	1
19	Tolosaldea	Tolosa, Ibarra, Villabona	2
20	Urola Garaia	Zumarraga, Legazpi, Urretxu	2
21	Urola Kosta	Zarautz, Getaria, Mutriku, Orrio, Zumaia, Azpeitia, Azkoitia, Zestoa	2
22	Debabarrena	Eibar, Elgoibar, Ermua, Mendaro, Soraluze-Placencia de las Armas, Deba	2
23	Debagoiena	Arrasate, Aretxabaleta, Bergara, Eskoriatza, Oñati	1
24	Goierrri	Beasain, Lazkao, Ordizia	1
Lurraldeko MLP-ak: Lurralde historikoetako merkataritza-laguntzako puntuak			
Zona	Lurralde-eremua	MLP kopurua	
25	Araba	3	
26	Bizkaia	4	
27	Gipuzkoa	4	

UZTAILAREN 1EKO 138/2025 DEKRETUAREN II. ERANSKINA

LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO
OROKORREKO TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAREN ETA
_____(R)EN ARTEKOA, MERKASARETZA EUSKAL SAREARI
ATXIKITAKO MERKATARITZA-LAGUNTZAKO PUNTU (MLP) BATEN BIDEZ MERKATARITZA-
LAGUNTZAKO ZERBITZU-ZORROA EMATEKOA

BILDU DIRA:

Alde batetik, Jakes Aguirrezabal Iribar jauna, Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Merkataritzako sailburuordea, uztailaren 16ko 158/2024 Dekretuaren bidez izendatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren izenean eta hura ordezkatzuz, Gobernu Kontseiluaren 2024ko uztailaren 16ko erabakian xedatutakoaren arabera.

Bestetik, _____ jauna/andrea, _____(e)ko
_____ gisa (IFZ: _____; helbidea: _____) eta entitate hori
ordezkatzuz, _____
_____ (e)an
xedatutakoaren arabera.

ADIERAZTEN DUTE:

Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du barne-merkataritzaren arloan, bat etorritik abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartutako Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 10.27 artikuluan xedatzen denarekin.

Bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eskumena du, Merkataritza Jardueraren maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen arabera, barne-merkataritza sustatzera eta bultzatzera bideratutako neurri egokiak hartzeko, beste administrazio eta organismo batzuek beren eskumenak erabiliz garatzen dituztenekin koordinatuta eta lankidetzan.

Gainera, lege horren 50. artikulua dioenez, merkataritza-enpresentzako laguntza teknikoak ematean, Eusko Jaurlaritzak lankidetzara sustatuko du tokiko merkataritza modernizatzeko merkataritza-orientazioko udal-planak dituzten udalekin, bai eta beste entitate publiko edo pribatu batzuekin ere, eta hitzarmenak sinatuko ditu, edo lortu nahi diren helburuak lortzeko egokiena den moldea erabiliko du.

Bi aldeak jakitun dira beharrezkoa eta garrantzitsua dela kalitate handiko laguntza teknikoko egitura bat izatea, merkataritza-politika publikoen koordinazioa eta dinamizazioa errazteko.

Administrazio publikoak modernizatzeko prozesuan eta merkataritza-banaketa sektoreari zuzenean bideratutako jarduketetan, funtsezkoa da merkataritzari laguntzeko eta merkataritza-jarduera dinamizatu eta bultzatzeko zerbitzu publiko bat izatea, doakoa eta merkataritza-banaketa sektore osoari eta haren erakundeei zuzendua, aintzat hartuko dituen generoaren, jasangarritasunaren eta eraldaketa digitalaren ikuspegiak, eta jardungo duena kalitate- eta profesionaltasun-irizpideen arabera eta modu koordinatu, partekatu eta behar bezala egituratua. Horrek, halaber, bide eman behar du erresilientzia, lehiakortasuna eta jasangarritasuna bultzatuko duten estrategiak definitzeko.

Bat etorritik MERKASARETZA Merkataritza Laguntzako Puntuen Euskal Sarea sortzen eta Merkataritza Laguntzako Zerbitzuen Zorroa zehazten duen 2025eko xxxxxxaren xx(e)ko xxx/2025 Dekretuarekin, laguntza espezializatua eman nahi da merkataritza-banaketa sektoreak dituen erronka berriei aurre egiteko. Horretarako, abian jarriko dira jarduketa-eremu bakoitzeko saltokien lehiakortasuna hobetuko duten eta ingurune aldakorrera egokitzen lagunduko dien prozesuak.

Turismo eta Merkataritzako sailburuordearen 20xx(e)ko ____aren ____ (e)ko Ebazpenaren bidez, MERKASARETZA Merkataritza Laguntzako Puntuen Euskal Sareari atxiki zitzaion xxxx zonako Merkataritza Laguntzako Puntua (MLP), _____ (e)(a)n kokatua.

Aipatutako dekretuaren 13. artikulua xedatzen duenez, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak dagozkion lankidetzak-hitzarmenak sinatuko ditu MERKASARETZA Merkataritza Laguntzako Puntuen Euskal Sareari atxikitzen zaizkion Merkataritza Laguntzako Puntuen (MLP) titularrekin.

Horretarako, _____ (e)(a)k _____ euroko aurrekontu zenbatetsia aurkeztu du Merkataritza Laguntzako Puntua (MLP) martxan jartzeko.

Azaldutakoaren arabera, bi aldeak bat datoz euren arteko lankidetzak-hitzarmena izango dela deskribatutako jarduketetan lankidetzak zein baldintzatan egingo den artikulatzeko tresna. Horregatik guztiagatik, ekintza hau aurrera eramateko beharrezkoa den lege-gaitasuna onartu diote aldeek elkarri, eta, ordezkatzen dutenaren izenean, administrazio-hitzarmen hau sinatu dute, honako klausula hauekin:

ESTIPULAZIOAK

Lehenengoa.– Xedea.

Lankidetzak-hitzarmen honekin, optimizatu egin nahi dira merkataritza-laguntzarako baliabideak, Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren eta _____ (r)(e)n arteko lankidetzak antolatuz, XXX zonan zerbitzu integral bat eskaintzeko, eta MERKASARETZA Euskal Sarean sartutako MLPei behar dituzten instalazioak, altzariak, azpiegitura eta irudia emanez.

Bigarrena.– Helburua.

Alde sinatzaileen asmoa da lankidetzak horren bitartez MLPak berme ematea dekretuaren 6. artikuluan definitutako Zerbitzuen Zorroari.

Hirugarrena.– Aldeen betebeharrak.

1.– Sarearen helburu eta xede orokorreari erantzuteko, Merkataritza Zuzendaritzak konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Laguntza teknikoko esparru bat eskainiko du, eta koordinazio-, informazio-, prestakuntza-, ebaluazio- eta jarraipen-zereginak beteko ditu. Horrez gain, tresna teknologiko zehatzak eskainiko ditu, sareko kide guztiak aberastuko dituen funtzionamendu bateratua, ikaskuntza eta esperientzia-trukea bultzatzeko.

b) Funtzionamendu operatibo homogeneousorako jarraibideak eskainiko ditu, epeen eta prozesuen egutegia barne; eta irudi partekatu bat, talde-zentzua eta kidetasuna sortzen dituen; MLP bakoitzak bere ezaugarrien eta testuinguruaren arabera sortzen duen kasuistika izatea eragotzi gabe.

c) Gehienez 40.000 euroko finantzaketa eskainiko du ondoz ondoko hamabi hilabeteko aldi bakoitzerako, merkataritza-laguntzailea kontratatzeko.

d) Ondoaz ondoko hamabi hilabeteko aldi horretarako bererako, merkataritza-laguntzako puntuko gastu operatiboak ordaintzen laguntzeko finantzaketa eskainiko du; gehienez ere merkataritza-laguntzailea kontratatzeko hitzartutako gastu finantzagarrien % 10 emango du.

2.– _____(e)(a)k, bestalde, konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Merkataritza Laguntzako Zerbitzuen Zorroa onartuko du.

b) Merkataritza Laguntzako Euskal Sareari atxikitzea eragin zuten baldintzak betetzen jarraituko du.

c) MLPek emandako aholkularitza- eta informazio-zerbitzua doan emango dio merkataritza-sektore osoari eta bere jarduketa-eremuko merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuen sektoreari.

d) Bermatuko du MLPko teknikariak Zerbitzuen Zorroa betetzeaz bakarrik arduratuko direla, arduraldi osoz.

e) Lankidetzeta-hitzarmen hau sinatu eta gehienez ere 30 eguneko epean eratuko du Merkataritza Laguntzako Puntua.

f) Behar beste leku emango dio merkataritza-laguntzaileari bere lana behar bezala egin dezan; gutxienez honako hauek izango ditu:

- Lan-mahaia.
- Ekipamendu informatikoa, telefono bidezko konexioa eta konexio digitala.
- Lekua beste zerbitzu batzuekin partekatuta badago, MERKASARETZA sarearen irudiarekin behar bezala bereizita eta identifikatuta egon beharko du, xedatzen den moduan.
- Biltzeko eta arreta pertsonalizatua emateko gune pribatuetarako sarbidea.

g) Ziurtatuko du lanposturako beharrezkoa den lanbide-profilarekin bat datorren merkataritza-laguntzaile bat kontratatuko dela, eta bermatuko du haren ordainsaria ez dela izango Merkataritza Zuzendaritzak ezarritako gehieneko finantzaketaren % 90etik beherakoa.

h) Merkataritza-laguntzako urteko lan-plana egingo du, MLPa eratzekeo esparru izan ziren bere jarduketa-eremuko hiri-ekonomiako planekin edo lurralde-plan estrategikoekin bat datozen plan edo proiektu estrategikoetan oinarrituta.

i) Hamabi hilabeteko aldi bakoitza amaitu ondoren, honako dokumentazio hau aurkeztuko du, hilabeteko epean:

– Merkataritza-laguntzailea kontratatzearen kostua eta gastu operatiboak justifikatzen dituen memoria ekonomikoa.

– Merkataritza-laguntzako urteko lan-planaren ebaluazio-memoria, gutxienez honako hauek adierazita:

- Zenbat argitalpen egin diren sare sozialetan eta zenbat mezu elektroniko edo SMS bidali diren merkataritza-enpresentzat eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuen enpresentzat interesgarria izan daitekeen informazioa zabaltzeko.

- Zenbat kontsultari erantzun zaien eta zeintzuk diren erantzun zaien establezimenduen sektorea eta biztanleria.

- Zenbat izapide eta zein motatakoak egin diren, zeintzuk diren eskatzaileen sektorea eta biztanleria, zein den dirulaguntza kudeatzen duen organismo publikoa eta zein den dirulaguntzaren helburua.

- Zer jarduera egin diren, eta zein izan den jarduera horien parte-hartzea eta gogobetetze-inkestaren bidezko balorazioa.

- Zenbateko bertaratzea izan duten merkataritza-arloan eskumena duen zuzendaritzak antolatutako birziklatzeko prestakuntza-jarduerak, bilerek eta lan-saioek.

j) Aktiboki parte hartuko du MERKASARETZA Euskal Sarearen jardueretan; merkataritza-laguntzailea birziklatzeko prestakuntza-jardueretara eta Merkataritza Zuzendaritzak antolatutako sareko bilera eta lan-saioetara joango da.

k) Merkataritza-arloan eskumena duen zuzendaritzak koordinatuta, elkarlanean arituko da gainerako merkataritza-laguntzako puntuekin, Sarearen emaitzak optimizatzeko.

Laugarrena.— Finantzaketa eta ordainketa.

Hitzarmen honen hirugarren estipulazioko 1.c) eta 1.d) apartatuetan xedatutakoari jarraituz, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak xxxxxx euro emango ditu hitzarmenaren indarraldiko ondoz ondoko berrogeita zortzi hilabeteko aldiak: xxxxxx euro, merkataritza-laguntzailea kontratatzeko, eta xx euro, Merkataritza Laguntzako Puntuaren gastu operatiboak ordaintzen laguntzeko.

Adierazitako zenbatekoak zati berdinetan banatuko dira ondoz ondoko hamabi hilabeteko aldi bakoitzerako.

Bi ordainketatan egingo da ondoz ondoko hamabi hilabeteko aldi bakoitzari dagokion ekarpena: lehenengoan, zuzkiduraren % 60 ordainduko da aldi bakoitzeko lehen hiruhilekoan, eta, bigarrenean, gainerako % 40a ordainduko da, hitzarmen honen hirugarren estipulazioko 2.i) apartatuan ezarritako justifikazioa aurkeztu ondoren.

Bosgarrena.— Ebaluazio eta Jarraipen Batzordea.

Entitate sinatzaileak jarduketa hauek egiteko bidea emango dio Ebaluazio eta Jarraipen Batzordeari:

a) MLPen urteko lan-planak baliozkotzea eta, hala badagokio, plan horiek hobetzeko eta egokitzeko proposamenak egitea, proposatutako jarduketak eta ekintzak MERKATARITZA 2030 Merkataritza Estrategiaren edo lurralde-estrategien planetara eta ildo estrategikoetara ahal beste doitzeko.

b) Lan-planen sei hilean behingo jarraipena eta plan horien emaitzen urteko ebaluazioa.

c) Entitateak MERKASARETZA sareari atxikitzeko eta ondoren parte hartzeko eskatzen diren eskakizunak betetzen dituela kontrolatzea, eta, beharrezkoa izanez gero, haren funtzionamendua ikuskatzea.

d) Doikuntza-proposamena edo, hala badagokio, sareko elkarlana eta parte-hartzea amaitzeko proposamena egitea, Merkataritza Laguntzako Puntuaren eskakizunak, betebeharrak eta funtzionamendua ez direla betetzen egiaztatuz gero.

e) MERKASARETZA sarea behar bezala ezartzeko eta garatzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein.

Seigarrena.– Hitzarmenaren indarraldia.

Sinatzen den egunean jarriko da indarrean hitzarmen hau, eta indarrean egongo da hurrengo 4 urteetan, hau da, berrogeita zortzi hilabetez jarraian, aldeetako batek berariaz amaitzeko eskatu ezean.

Hamabi hilabetezko aldi bakoitzeko azken hiru hilabeteetan, hurrengo hamabi hilabetei dagokien merkataritza-laguntzako lan-plana aurkeztu beharko da Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailean.

Bestalde, hitzarmena beste lau urterako luzatu ahal izango da, baldin eta horretarako beharrezkoa den aurrekontu-kontsignazioa badago. Luzapenak egiteko, luzapen-protokolo bat sinatuko du Ebaluazio eta Jarraipen Batzordeak, eta hitzarmenaren zati banaezin gisa erantsiko zaio dokumentuari.

Dena dela, luzapena nahi izanez gero, luzapen-protokoloa bera sinatuta aurkezteko eskatuko da, bai eta hurrengo urteko merkataritza-laguntzako urteko lan-plana eta aurrekontua helaraztea ere Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari hitzarmenaren indarraldiko azken hiru hilabeteetan.

Zazpigarrena.– Hitzarmenaren izaera.

1.– Hitzarmen honek administrazioarteko izaera du, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeari jarraituz arautzen da (entitate publikoen kasuan).

2.– Hitzarmen hau urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren VI. kapituluaren aurreikusitako hitzarmenen araubide juridikoaren mende egongo da, eta izaera administratiboa izango du (entitate pribatuen kasuan).

Desadostasunik bada, aintzat hartuko dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, urriaren 1eko 40/2015 Legea, aplikatzekoak diren gainerako administrazio-arauak eta zuzenbidearen printzipio orokorrak.

Adostasun jartzerik ez badago, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardurapekoak eta eskumenekoak izango dira auzigaiak, jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen xedatutakoaren arabera.

Zortzigarrena.– Ez-betetzeak.

Bi erakundeek adosten dute hitzarmen honetan bildu diren betebeharrak bat edo batzuk egin edo betetzea ezinezkoa izan delako sortzen diren zailtasunak Ebaluazio eta Jarraipen Batzordeak konponduko dituela, hau da, bosgarren klausulan arautu den batzordeak.

Aldeek beren gain hartu duten edozein betebeharren doluzko edo erruzko ez-betetzearen ondorioz, hitzarmen hau suntsiarazi egingo da. Bereziki, MERKASARETZA Euskal Sareari atxikitako MLP batek xedapen honetan haien zatik ezarritako araubidea betetzen ez badu, saretik kanpo geratuko da, horretarako espedienteak izapidetu ondoren –espediente horretan, entzunaldia emango zaio sarearen titularrari–; horrez gain, hitzarmen hau hutsaldu egingo da, eta MLPak itzuli egin beharko ditu dagozkion zenbatekoak gehi legezko interesa.

Inguruabar hori dekretu honen 14. artikuluan aipatzen den MERKASARETZA Euskal Sareari atxikitako Merkataritza Laguntzako Puntuen Erregistroan jasoko da, inskripzioa baliogabetuta.

Hitzarmen honen kudeaketa eta jarraipena Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren Merkataritza Zuzendaritzak egingo du.

Eta, ados daudela adierazteko, aldeek hitzarmen hau sinatzen dute, Vitoria-Gasteizen, sinadura digitalean ageri den egunean.

Jakes Agirrezabal Iribar jn.

_____ jn./and.

Turismo eta Merkataritzako sailburuordea

Kargua: _____